



ZAKILIXUT

© Olariagak



◆ Kate motzean ◆

«Egia da goseak adimena zorrozten duela»

■ Zer, goseak?

Oraindik ez, ordu gutxi dira eta esan dezagun oraindik ez naizela jabetu ere egin.

■ Goseak adimena zorrozten omen du.

Hori egia da. Gose greba egin dut batzuetan, ikusi dut jendearen erreakzioa eta nik neronek ere esan dezaket neure esperientziatzat baietz, zorroztu egiten duela. Eta nola gainera!

■ Atutzak animoak eman dizkie, irratiz, baraualdian «borondate onez» parte hartzen ari direnei.

Orduan salbatuta gaudel! Atutza bera ere horrelako posizioetan baldin badago, hori oso seinale ona da. Horrek esan nahi du denak gaudela presoen alde!

■ Senideak elkarteko kide zara?

Ez.

■ Laster izan beharrenden beldur?

Beldur baino gehiago, segurtantzia daukat, segurtantzia osoa. Ez Senideak erakundeak baino preso-senide izango naizela, bai. Nire semea barrura doa. Mahai osoa doa barrura!

■ Zerk egiten ote dio grazia Aznarri?

Nire ustez arazoa fisikoa da. Bibote hori beti dauka oso itsatsita bezala eta hitz egiten duenean ez zaio expainu mugitzen. Ez da irribarra: aurpegi horrelakoa dauka.

■ PPko adiskiderik baduzu?

Anaia izan nuen PPkoa.

■ EAJkorik?

Izan nituen baina orain ez. Adiskide izateko izan behar da halako kideetasun bat gauza funtsezkoetan. Ez da nahi ez dudala; ezin nuke izan! EAJ da herri honek daukan desastre nagusia momentu honetan. Eta ez diot barruko inori nire adiskidantza eman nahi. Ezin izango nuke.

■ ETaren sorrera garaian Julen Madariagak esan omen zuen: «La liberación de Euskal Herria pasa por la destrucción del PNV».

Hori inoiz baino egiaagoa da momentu ho-

netan. Egia santua. EAJ gainditu arte, jai.

■ ETari ia ATA (Aberri ta Askatasuna) ipini zenioten.

Nik proposatu nituen bi izen horiek, egia da, eta ETA hautatu genuen. Bizkaitarrek eskatu zuten ATA ez jartzeko, ata berentzako pato, ahatea, delako. Hori prehistoria da! Baina egia da, bai.

■ Zu zer zara, demokrata edo biolentoa?

Biolentoa da gauzak justiziarren kontra biolentziaren bidez, indarkeriaren bidez, inposatzen dituen. Gauzak momentu honetan dauden bezala, biolentzia Estatuan dago. Eta ni biolentzia instituzional horren kontra nago. Ez naiz bortxaren aldekoa inondik ere.

■ Jose Elorrieta da gure John Hume eta Rafa Díez gure Gerry Adams?

Badirudi baietz. Nik errespetu guztia diet bie. Nahiz eta klase defentsan egon sindikalistak dirrelako, askoz hobeto ezkontzen dituzte klase interesak eta nazio interesak besteek baino. Oinarri soziologiko berria sortzen ari da ELAri eta LABi esker, eta bi gizon hauek gizon giltzarriak dira momentu honetan.

■ Krutwigi omenaldia egin diote Akademian denbora gehien daraman euskaltzaina delako.

Omenaldirik egingo dizute zuri, 1957an izendatua, urgazle heteranoena zarela?

Lehengoan jakin dut lagun batek proposatu duela ni «urgazle iraunkorra» izendatzea. Ondo legoke. 40 urtez urgazle... txapeldun!

Txillardegia

Hizkuntzalaria



Hizkuntzalaria da Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegia. Euskal azentuan da aditu, eta soziolinguistika irakaslea da EHUko Filosofia Fakultatean. Baina Informatika Fakultatean izan da ostegunetik gaur arte, euskal presoak Euskal Herrira ekartzera eskatuz itxialdia eta baraualdia egin duen taldean. Ostegun gauean egin genuen elkarrizketa, baraualdia hasi eta ordu batzuetara.

■ Esaldi batean: zergatik ez zara euskaltzain oso?

Hori kontu politikoa ez bada, ez da ulertzen.

■ Krutwigi entzuna diot euskaldunok «telefono urdina» esmatu dugula. Euskaltzainek erabiltzen dute zalantzaren bat

gutenean, zerura Mitxelenerari deituzko.

Boutade hori entzuna dut lehengo ere. Beharbara Ibon Sarasolak badu telefono urdin bat zuzenean, ez dakit.

■ Pianoz Gora ta Gora Euskadi jotzeko gauza zara?

Ez da oso egokia pianoan jotzeko.

■ Espainiako ereserkia?

Bolada batez etxean bazen, pi-perpoto eta guzti, *Partitura del Himno Español* delak ba. Amak edo ez dakit zeinek erosit.

■ Ondo jotzen duzu?

Ez! Pianista amateur apala naiz.

■ Hamasei urte egin dituzu erbestean. Zenbat etxetan bizi izan zara?

Emaztearekin kontuak egin genituen halako batez: ezkondu ondoren 33 etxetan egon bide gara.

■ Andromeda galaxiari begiratzeak merzei duela entzun izan dizut.

Andromeda gure galaxiaren bizkia da, gure hurbilekoena. Eta hemendik hara bi milioi urte argi dago. Hogei trilioi kilometro. Eta ehun mila milioi izar. Horrekin dena esana dago.

■ Zer dago esana?

Gure polemikak eta eztabaidak, Andromedaren argazki baten ondoan jartzen badira, oso apal gelditzen direla, behar duten lekuan.

■ Afalordua da. On egin dagizula.

Gaurko afaria oso ona izango da omen guretzako, oso oparota eta oso ondo prestatua... Piperra ta guzti, bapoi!

Imanol MURUA Uria



BILINTX
MEGIDENDA

DONOSTIA

Femin Calbeton, 21 - Tel.: 42 09 30 - 42 00 80 / Faxa: 42 23 63
IRUNEN: Republica Argentina, 4 - Tel.: 62 66 17
TOLOSAN: Arostegietan - Tel.: 67 35 33
BERGARAN: Ibagarai, 14 - Tel.: 76 40 50



XALBARDOR
LIBURUDENDA

Comedias, 14
Tel.: 22 41 67 / 22 99 81 - Faxa: 21 10 61
31001 IRUNEA



UPPETXINDORREN
LIBURUDENDA

Iparragire, 26
Tel.: 424 02 28 / 424 43 96 - Faxa: 424 42 35
48011 BILBO